

Noaia !!



Azken epaiak salatzeko mobilizazio ugari egin dira




Usurbil baino denbora hobe egin zuen Aginagak

Orio nagusi Trainerila Txapelketan



antenas
Telemar

t d t



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
antenastelemar@terra.es



I. URKUZOLA ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan) **LASARTE**
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131



Aseguru Artekaritza

Eskatu aurrekontua

- **autoak**
- **etxeak**
- **bizi-aseguruak**
- **komunitateak**
- **merkataritza-denak**
- **enpresak**
- **pentsio planak**

Albistea iruditan !!

Zorionak eta urte askotarako

80 urte betetzen dituzten lagunak momentzeko ohitura du Gure Pakea elkarteak. Aurten, Atxega jauregian egin dute ospakizuna. Irudian dituzue aurten-goan 80 urtera iritsi diren gizon-emakumeak. Opari bana jaso zuten eta argazkarako denak elkartu genituen jabetxearen atarian: Jesus Sancho, Candida Zubeldia, Rafaela Zamora, Jose Mari Zubiria, Segundo Ibargoién, Maria Dolores Aierdi, Julian Izagirre, Miguel Arrastoa, Teodoro Aranburu, Maria Azurmendi eta Natalia Etxebarria. Jose Sagardiari osasunak ez zion lagundu baina gogoan izan zuten.

Gure Pakea elkarteak kideek eskerrak eman nahi dizkiote Usurbilgo Udalari, Kutxari eta Euskadiko Kutxari, eskainitako laguntzarengatik.



AURTEN 80 URTE BETE DITUZTENAK, OPARIAK ESQUETAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angele Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

BUS-TAXI ZERBITZUA, JADA MARTXAN **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

TASAK ETA ZERGA, IGOERA HANDIA **10. OR.**

IGANDEAN, EUSKAL JAIA ZUBIETAN **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ZUBIALIRRENEA4.USURBIL
 ilea painedgi mistoa
 943361951

ARRAINDEGIA
PELLO
 Puntapax Kalea,7
 Tlf 36 21 64
 USURBIL

txirriStra
 KONTSEJUZARRA 13
 943 360 466
 pintxoak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak
TABERNA



LUIS ARANALDE

“Harri Zaharra”

Hiru aste dira Aita Santua Lourdesera joan zela. Parisen Egun pare bat igaro ondoren, Ama Birjiñaren santutegira hurbildu zen; izan ere, 150 urte baitira Lourdesko agerpenak gertatu omen zirela eta.

Kondairak zera dio: 1858ko otsailan, Lourdesko hiru haur basoan zehar zihoazen. Hirukoteko bat Bernardette Soubirous deitzen zen. Asmatikoa zenez, besteei ezin segitu eta atzean gelditu zen; eta hara non haize leun batek ukitzen duen bere aurpegia. “Susmoa” deitzen dio berak. Baina, zuhaitzen hosto bat bera ere ez da mugitzen. Berrero ere haize misteriotsu horrek burua altxarazten dio. Orduan ikusten du argi distiratsu bat; berak “la chose” deitzen dio, gauza, zer edo zer. Gerora neskatxa deituko dio eta azkenean dama. Hori dena gertatzen da Massabielle (“Harri Zaharra” okzitaniaraz) leku berezi batean. Egun batzuk geroago, Bernardettek ukitzen du Massabielleko harkaitza eta iturria sortzen da. Geroztik beti dario. Mirariak egiteko ere gai omen da ur hori.

Ez zen batere erraza Aita Santuarentzat Lourdesi debozio herrikoiak eman dion kutsu mirakulutsu eta magikoa saihestea. Lourdesi deitu zaio mirarien faktoria, Meka... Honetan biziki eskertzen dut Aita Santuaren jarrera. “Kristo ez da sendagilea” esanez, nolabait baztertu egiten zuen jarrera erdi superstizioso hori. Ausarta izan da gure buruzagi erlijiosoa. Jakin behar da ia sei milioi erromes joaten direla urtean zehar, 80.000 gaixo, 20 milioi euro biltzen dituela Elizak; superstizioaren merkatu bihurtzeko arriskua izan du beti Lourdesek.

Oso ondo definitu du Benedikto XVIak zein den Lourdesen benetako zentzua, izaera, helburua: Jainkoarekin elkartzeko eta gizakia zerbitzatzeko gunea. Eta zerbitzatu behar diren horien

artean, batez ere, gaixoak, pobreak eta sufritzen dutenak.

Askotan izan naiz ni Lourdesen; hamar urtez bizi izan nintzen Lourdestik gertu eta bai bakarrik eta bai lagunekin, harako joera izan genuen maiz. Inoiz ez dut gogoko izan harri sakratuari muin egitea, ur mirakulutsua edatea, dendetan objektu erlijiosoak erostea. Nik ikuskizun fantastiko bati erreparratu izan diot beti: ehunka gazte eta heldu ikusten nituen aldiro elbarri, gaixo, ezindu eta itsuri laguntzen; askotan, beren oporretako egunak erabiltzen zituzten lan solidario horretan. A zer ukendua gaixoentzat gertuko ekintza soil bezain paregabe horiek! Hori da niretzat Lourdesko benetako miraria: alegia, elbarri eta ezindu horiek esperantza berpiztuta eta bizia kantatzeko gogoz etxeratzea.

Lourdesko Hospitalitatean parte hartzen duten batzuk eza gutzen ditut; horiek ere gauza bera esaten didate: gaixoak guztiz indarberrituta itzultzen direla eta haiei laguntzera joaten direnek ez luketela ezerengatik aldatuko bizi izan duten esperientzia aberasgarri hori.

Bemol bat jarriko nioke Lourdesko bisitari: jaunartzerakotan Jauna berrogeiren bati eman zien Aita Santuak, baina, hori bai, belauneko egon behar zuten eta Hostia mihian hartu. Hori omen da bere estilo kuttuna. Eta egin zizkien kritikak elkartzeko zibilei, dibortziatuei eta dibortziatuak berriz ezkontzen badira bedeinkatzeari, nire ustez lekuz kanpo zeuden.

Frantziar egunkari zein aldizkari batzuk irakurri ditut, eta ia denek azpimarratzen zuten Benedikto XVIak Frantziar utzi duen oroimen gozoa; garai batean zuen inkisidore irudia ahantzi dute frantsesek.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Usurbilgo EAJ-PNV

“Ezintasunaren adierazle da ANV jokoz kanpo uztea”

EAE-ANV legez kanpo uzteko erabakiaren aurrean, oposizioan diren alderdien balorazioak bildu genituen aurreko astean. EAJ-PNVrena falta zen eta astebeteko atzerapenez jaso baditugu ere, hemen dira Usurbilgo jeltzaleen balorazioak.

EAE-ANV legez kanpo utzi du Auzitegi Gorenak. Zein da erabaki honen inguruan duzuen iritzia?

Ezintasunaren adierazle da EAE-

ANV jokoz kanpo uztea. Baita ere kalkul politikoa. Estatuak, erabaki honekin bi helburu ditu, bata azaltzea hemen bizi duguna arazo politikoa ez dela, baikik eta bake arazo hutsa. Ez dio aurre egin nahi bizi dugun gatazka politikoa-ri, zeren normalizazio prozesu batek, nahitaez oinarrian dagoen gakoari aurre egin beharra dio. Gatazkaren oinarrian dagoen auzia ukatu nahi duelako.

(...) Gizarte honen zati bati ahoa ixteak, ez dio normaltasun politikoari inolako mesederik egiten. Eta beti diogun moduan, erakundeetan beharrezkoa da gizarte anitz honen espresio guztiak egotea.

Bestetik, legez kanpo uzte honetan ere badago, kalkulu politiko elektoralak, kontuan badugu Zapateroren lehentasuna dela hirukoa Gasteizko

Gobernutik kanpo uztea.

Ez du zentzurik, orain dela urte bete, gobernuak berak herri askotan legeztatutako udal zerrenda asko, orain kanpo utzi nahia.

Epaiak udalgintza mailan eraginik izango duela uste duzue?

Beraien lana zaildu egingo du, zeren legearen arabera, batzordeetan eta udal plenoetan, taldeen bitartez egin beharra dago lana.

Horregatik, legeak ematen dituen aukera guztiak landu beharra daude, zinegotzi horiek beste zinegotziok ditugun baliabide berdinekin lana egin dezaten, bere egitasmoak aurrera egin ahal izateko. Horretarako, gure ustez badaude bideak, eta guk bide horiek garatzea proposatuko dugu.

Bus-taxia, dagoeneko martxan

Landa-eremua herri gunarekin lotzen duen bus-taxi doako garraio zerbitzu berria martxan dago aste hasieratik. Aurrerantzean, astelehenetik ostiralera, lautan zeharkatuko du herria. Dagoeneko zerbitzua estreinatu duen erabiltzailerik bada, eta informazio telefonora ere deitzen hasiak dira herritarrek.

Furgoneta txuri bat ikusten duenak, leihoei begira diezaiela. Autobus baten irudia daraman kartelak itsatsita ikusten badira, argi dago. Udalaren eta Behemendiren elkarlanari esker, landa-eremua herri gunarekin lotzeko urriaren 6az geroztik martxan den bus-taxi garraio zerbitzu berria da. Maribel Jorge eta Amaia Martiarena dira bertan lanean dihardutenak.



MARIBEL JORGE ETA AMAIA MARTIARENA DIRA BUS-TAXIAREN GIDARIAK.

ABANTAILA UGARI

“Medikuarengana edo erosketak egitera joatea errazagoa izango zaie orain auzoetako bizilagunei”

Gustura hasi dira haien eginbeharretan. “Segituan pasatzen da denbora”, azaldu dute. Azkarrago pasako zaiela diote, erabiltzaile kopurua gehitzen doan neurrian.

Hilaren 6an furgonetara igo zen lehen herritarra DBHko ikasle bat dugu. Lehen, ikastolara gurasoek eramaten zuten baina garraio zerbitzu hau dagoela ikusita, hobeto moldatzen da orain.

Ez da ahaztu behar, mugikortasun arazo larrienak dituzten landa-eremuko herritarrei zuzendutako garraio zerbitzua dela bus-taxia. Lehenetsuna haiek izan arren ordea, aipatu inguruetakoa herritar orok baliatu dezake. Eta doan.

Etxeraino joateko, deitu

Erabiltzaileak gustura asko ibiliko dira. Estraineko egunean bezala eguraldi zoragarria egiten duenean adibidez, geure inguruetan dugun paisaia ederraz

gozatzeko aukera dago bus-taxian bidaiatuta. “Ondo dago herria ezagutzeari”, aipatzen du Maribelek beste abantailen artean. Gidariekin solasalditxoak izan eta konturatzerako, ailegatu nahi dugun helmugan gaude.

Geltokietako batera joatea urrunegi gelditu edo bertaratu ezin duenak 630 64 35 96 telefono zenbakira deitu dezake. Maribelek hartuko du. Finkatu den ibilbidetik kanpo gelditzen diren etxeren batera bus-taxia joatea nahi duenak,

aldez aurretik, bezperan deitzea aholkatzen du gidariak.

Denbora behar dela diote, herritarrek zerbitzu berria, furgoneta eta langileak ezagutu ditzaten. Gainera, egun duten ibilgailua behin behinekoa da, laster auto berri bat jarriko baita.

“Aukera izanda, erabili dezatela”, deitzen du Martiarenak. Medikuaenera edota erosketak egitera joatea errazagoa izango zaie orain, landa-eremuko biztanleei. Bus-taxia eskura baitute.

Auzoak lotzen ditu ordubeteko bueltan

Ordubeteko tartean honako geltokiak ditu bus-taxi zerbitzu berriak: frontoi atzea, Kalezarko Haur Eskola, Iartza, Ibarrola, Arratzain, Txantxon, Urdaira, Aginaga, Txokoalden Portu ondoa, Urdaiagara igotzeko azken aldapako estalpea, Santuenean zubi ondoko estalpea, Usurbilgo frontoi atzea, Santuenea berriz, Amiri, Etxetxo, Alkortaenea, Alamandegi atzeko kalea, Txikierdin Hurbil aldera doan bus geltokia eta frontoi atzea.

GELTOKIAK		ORDUAK			
1	Usurbil kaxkoa	7:30	13:00	15:30	19:00
2	Kalezar	7:32	13:02	15:32	19:02
3	Iartza	7:35	13:05	15:35	19:05
4	Ibarrola	7:38	13:08	15:38	19:08
5	Arratzain	7:42	13:12	15:42	19:12
6	Txantxon	7:45	13:15	15:45	19:15
7	Urdaira	7:48	13:18	15:48	19:18
8	Aginaga	7:55	13:25	15:55	19:25
9	Txokoalde	8:00	13:30	16:00	19:30
10	Urdaiagara San Esteban	8:03	13:33	16:03	19:33
11	Santuenea	8:05	13:35	16:05	19:35
12	Usurbil kaxkoa	8:08	13:38	16:08	19:38
13	Santuenea	8:10	13:40	16:10	19:40
14	Amiri	8:12	13:42	16:12	19:42
15	Etxetxo ingurua	8:14	13:44	16:14	19:44
16	Alkortaenea	8:17	13:47	16:17	19:47
17	Zubieta	8:22	13:52	16:22	19:52
18	Txikierdi	8:27	13:57	16:27	19:57
19	Usurbil kaxkoa	8:30	14:00	16:30	20:00

Astelehenetik Ostiralera

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Auzoa korapilatzen



Asko eta asko, denak ez esatearren beti ere, ohartuak izango zarete auzoan norabide aldaketak edo murrizketak izan ditugula.

Nik gogoan dudaren arabera lehen herrira jaisteko bai gorakoa eta baita beheakoa ere Kalezarko ermita ondotik behera doan bidetik egin genuen, Ugartetik barrena. Ondoren, Ugarte gaineko errepeida edo kalea txukundu zuten horko etxe berriak eginen eta orduan aukera genuen nahiz gora nahiz behera nahi genuen lekutik joateko. Orain berriz, ez da beste bideirik sortu baina norabideak murriztu egin dira, hau da, Ugarteko aldapa igotzeko bakarrik da. Beherakoa berriz garai batean Haur Eskola zeneko ondotik eskubitara hartu eta sindikatu aldamenetik egin behar da, Kalezar auzo erditik egin nahi ez bada behintzat. Egia esan behar bada, ez da aldaketa handiegia baina aizu, kosta egiten dela ohiturak aldatzea!

Erabakia ona izan dela uste dut beti ere, eta ordu jakin batzuetan behinik-behin, egun Haur Eskola dagoen inguru horretan zalaparta gehiegi sortzen baitzen; auto mordoa



aparkatuta haurrak Haur Eskolan uzteko, bakarren bat oinez, kotxezitoan haurra duela, bide ertzetik taxuzko espaloirik ez dagoelako, gainontzeko autoak gora eta behera... Orain berriz, aldapa horretan gorakoa bakarrik egin daiteke eta gainera piboteekin oinezkoaren bidea handitu egin da. Beraz, primeran.

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzoko festak



Aurtengo festetan, urtea oso azkar pasa zai-Adala konturatu naiz, eta hori ez dela onegia iruditzen zait. Baina tira, auzoko festak oso ondo ateratu dira, eguraldi onarekin ederki ateratzen dira, eta gainera aterperik ez dugunez, ezinbestekoa dugu goiko horren laguntza.

Gai hori ere ez dakigu nola doan, proiekturik badagoen edo ez, baina zerbait behar dugu auzoan eta ez bakarrik festetarako, urte guztirako baizik.

Festak ondo ateratzeko ezinbestekoa da jendearen parte hartzea, eta aurten ere jendea gure auzora etorri da eta horrek poza ematen du. Lehen bazirudien Santuenea urruti geratzen zela baino ikusi da hori ez dela horrela.

Festetan denetarik izan dugu. Pertsonalki igandeko zaldien ikuskizuna oso ederra iruditu zitzaidan. Zaldi doma izan zen, bere musika, esplikazio eta guzti. Arazoak ere noski egon direla eta nahikoa larria gainera izan zen larunbatekoa. Bezperan egindako bakailu guztia galdu zen eta inprobisatu behar izan zuten hainbeste jendearentzako afaria. Diru galera izan zuten hainbeste bakailu galdu zelako, baino hori baino okerragoa pertsona batzuen portaera izan zen. Jakin zer gertatu zen eta hala ere, kritikak! Batzuetan isilik egotea...

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Zaborrari aurre eginez...

Aupa auzokideok! Denbora da zaborra-aren arazoa denon ahotan dabilela. Iritzi ezberdinak entzuten ditugu handik eta hemendik: erraustegia dela, konposta-planta dela, zabor bilketa sistema dela,... Baina zaborraren etorkizuna argitzen den bitartean garbi dago guztiok arduratsuak izan behar dugula. Arazo honi irtenbidea bilatzea ez da lan erraza, baina pausoak ondo emanez zaborrari aurre egitea lortuko dugula ziur nago. Herritarrok oraindik asko dugu egiteko baina baita instituzioek ere. Lana guztion artean banatu behar dugu. Nik konpromisoa aspaldi hartua dut; ahal den gehien birziklatzen eta berrerrabiltzen saiatzen ari naiz, baina horretarako bitartekoak ahalik eta txukunen eta eskuragarri egon behar dute. Atxegalden baditugu bitartekoak baina azkenaldi honetan nahiko desastre daudela ikusi ditut. Zaborraren ontziak taparik gabe eta espaloietan jarriak eta birziklatzeko ontziak aparkalekuetan hala moduan jarriak. Kasu honetan Udalak zer esan handia daukala uste dut eta beraz, lerro hauetatik bitarteko hauek ahalik eta txukunen eta erosoan jartzea eskatzen diot. Guztiok zaborrari aurre egin behar diogu, baina zabarkerietan erori gabe.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

San Praixkuetan



Tristura handia sentitugenuen ostiral gauean, gure herriko frontoira inguratu ginen guztiok.

Bertan hari zen "Egan" bere ohiko erromeriarekin. Ia-ia jenderik ez zegoen beraien musika entzuteko eta ez dantzatzeko ere. Talde honek euskaraz bakarrik abesten zuela uste nuen baina garai haiek urruti geratu dira. Erdaraz ere entzun bainien edo hala iruditu zitzaidan behintzat. Non geratu dira "Egan", "Akelarre" edo "Oroitzak" bezalako taldeek plazak betetzen zituzten urteak eta euskara hutsezko erromeria eder haiek!

Ostiral honetan, San Praixku bezpera izan arren, ia-ia usurbildar jende gehiago zegoen bertako jendea baino. Estimaten dugu, beharrezkoa dugulako, Usurbildik eta inguruko beste herrietatik jendea etortzea, jenderik gabe ez



baitago festarik. Baina agiñatar hain gutxi ikusita, lotsa pixka bat sentitu nuen.

Baina zoriona hurrengo egunean iritsiko zitzaigun. Larunbatean, San Praixku eguna, estropadak izan genituen arratsaldean Oria ibaian. Sei trainerilek hartu zuten parte: oriotarrek, pasaitarrek, hondarribitarrek, usurbildarrek... Eta, noski, aginagatarrek. Oriotarrek nagusitu ziren iaz bezala. Bigarren postuan hondarribitarrek geratu ziren oriotarrekin lehia estua mantendu eta gero. Donibandarrak hirugarren eta gure tainerila laugarren postuan geratu zen, bostgarren sartu ziren sanpedrotarren eta azkena iritsi ziren usurbildarren aurretik.

Esan beharrik ez dago ikusle gehienok azkeneko txandaren zain egon ginela. Iaz usurbildarren eta aginagatarren arteko lehia nahiko estua izan bazen ere, aurten Aginaga gailendu zitzaion Usurbili, nahiko erraz gainera.

Giro polita, eguraldi ona eta irabazlearentzat bandera ederra. Oriotarrek aurtengo Kontxako bandera ez dute eraman baina gure bandera ere oso ederra da eta ondo zaindu dezatela. Festak aurrera doaz eta animo Jai Batzordekoei, lan polita egiten ari zarete eta.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Jaramonik ez



Dirua. Lana. Pisua erosi berritan eta bizitza hipotekatu ondoren gauza garrantzitsu gutxiri ematen diogu bere inportantzia. Hilaren amaieran iritsiko ote garen "Aurreztu" izena duen bigarren bikotearen bihotzean gehi ikurra izatera. Orain, gehiago, hedabideetatik burtsaren aztoramenduz globalizatzen gaituzten honetan.

Ez dugu gauza berririk aipatzen bizitzako gauzarik baliotsuenak diruarekin eros ez daitezkenak direla esatean. Denok dakigu sexua erosteko aukera badu ere, maitasunarekin ezin duela altxorretan altxorrenak ere. Lokartu aurreko lasaitasuna urezko ohearen jabe denak ezin duela menderatu. Edota gehien irabazten duen sendagi-leak ezin duela erosi gure osasuna. Denok dakigu.

Orduan, gure bakardeaz, izateaz... hausnartzen dugu. Ez dugu nor garen ezagutzen. Zer naiz? Nor naiz? Nolako naiz? Pertsona heldua ote naiz? Bakoitzak norbera estimatzen al du? Noraino? Ustekabekoen (zorion nahiz nahigabeen) aurrean zer emozio, sentazio ote ditut? Ustekabekoaren eta sentimendu hauen oreka erabatekoa al da? Naizena eta gertukoek uste dutena naizena bat al datoz? Zer dakit? Zer ikasi dut? Zer jakin dut entzuten?

Orduan, gure barruak deitzen digu askatasun eske. Eta gure barruan bilatzen dugu askatasuna. Gure barruan arakutzen ibili ondoren, jabetzen gara askatasuna gure barruan dugula preso giltzaperurik. Eta sarrailaraino iritsi ezean, ez garela askeak izango. Denok dakigu. Eta zer den gizakia! Jakin arren, jaramonik egiten ez duena.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Festa eta errebotea

Urte osoan zehar ikastaroak eta besotelako kultur ekintzak antolatzea, frontoi atzeko lokala kudeatzea, erraustegiaren kontra eta alternatibaren alde aritzea, kirola sustatzea. Horiek dira Zubieta Lantzen elkartearen asmoak. Aurten hainbat ekintza antolatu ditu jada: erraustegiaren kontrako bertso afaria, zaborren sailkapen egokia sustatzeko ekintzak, in-line patinaje ikastaroa, dantza ikastaroa eta bonsai-erakusketa.

Eta orain Euskal Jaia antolatu dute iganderako: ume-entzako jolasak eta pottokak, hernaniarren laguntzarekin kantu-poteoa, herri bazkaria, Tapia eta Leturiarekin erromeria...

Erreboteak ere dagokion lekua izango du igandeko festa horretan baina baita bezperan ere. Izan ere, larunbatean 19:00etan Mikel Bengoetxeak eta Xabier Arregik errebotearen inguruko ikastaroa emango digute frontoi atzeko lokalean: nondik datorren, nola jokatzeko den, Zubietan erreboteak duen lekua... Kanpotik Zubietara etorri garenontzako ezinbesteko hitzordua, igandeko partida ulertzen lagunduko diguna. Jantzi baserritarrez, enkargatu eguraldi ona eta plazara!



Artzabalgo zahar egoitzako taberna eta jatetxearen kudeaketa esleitu da

Irailari zegokion hileroko osoko bilkura pasa den astean burutu zen. Hirigintza eta zerbitzuei lotutako gai bat baino gehiago ahotan hartu zuten udal ordezkariak, baina baita bestelako kontuak ere; Artzabalen kokatuko den zahar egoitza berria, 2007ko Kontu Orokorraren onarpena, bus-taxi zerbitzu berria abian jartzeko Udalak eta Behemendik sinatu beharreko hitzarmena, Arau Subsidiarioei lotutako gaiak edota azken atentatuen haritik sozialisten taldeak aurkeztu zuten mozioa.

Jendaurrean egondako tartean, inork erreklamaziorik aurkeztu ez duenez, osoko bilkurak behin betirako onartu zuten 2007ko Kontu Orokorra.

Bestalde, Atalluko Plan Partzialaren Aldaketa behin betikoz onartu zen, udal gobernu taldearen, PSE-EEren eta EAJ-PNVko udal ordezkariak babestuta. EAK aurka bozkatu zuten. Luis Mari Ormaetxeak aurkeztutako alegazioa ez zen aintzakotzat hartu. Aralarko zinegotziak, berriz, abstenitu ziren. Orain, Plan Partzialaren Aldaketa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da.

Gehiengo osoz onartu zen baita, eta behin betirako, Agerreazpi sektoreko Plan Partzialaren Aldaketa.

Artzabalgo Zahar Egoitza

Artzabal eraikinean kokatuko da Zahar Egoitza berria. Bertako portxea, sarrera, taberna, jangela eta behe solairuko zerbitzu eta instalazio osagarrien erabilpena eta kudeaketa emakida administratibo erregimenean hartzeko Unai Loidi Leunda herritarrari behin behineko esleipena egitea onartu zuten osoko bilkurak eta aho batez, irailaren 30eko saioan. Gogoratu beharra dago, ekainaren 24an udalba-



ARTZABALEN KOKATUKO DEN ZAHAR EGOITZA BERRIA ZABALTZEKO PAUSO BERRI BAT EMAN DU UDALBATZAK; TABERNA ETA JATETXEKO KUDEAKETAREN ESLEIPENA EGIN ZEN AZKEN OSOKO BILKURAN.

tzak iragarri gabeko prozedura negoziaturik ekitea erabaki zuela, aldez aurretik zabalik egon zen prozedura irekia hutsik geratu baitzen. Abuztuaren 4ra arteko epea izan zuten interesdunek zegokien eskaintza aurkezteko. Deialdira bi proposamen aurkeztu ziren; tartean, Unai Loidi herritarrarena.

PSE-EEren mozioa

Irailaren 21 eta 22an, Ondarrun, Gasteizen eta Santoñan izandako atentatuak gaitzesteko Amaia Goyaran zinegotzi sozialistak Gipuzkoako Batzar Nagusietan aho batez onartu zen adierazpen instituzionala irakurri zuen.

Bozketara eramanda testua onartu zen, mozioaren alde agertu baitziren, PSE, EAJ-PNV eta EAKo zinegotziak. Aralarkoak abstenitu ziren, testuko zenbait ñabardurekin ados ez zeudelako. Udal gobernu taldeko kideek aurka bozkatu zuten, aipatu zenez, Euskal Herriak pairatzen duen gatazka politikoaren alderdi baten balorazioa egiten delako.

Behemendi eta Udalaren arteko hitzarmena, onartua

Aste hasieratik jada funtzionamenduan den bus-taxi zerbitzu berriari lotuta, Udalaren eta Behemendi Landa Garapeneko Elkartearen arteko hitzarmena onartu zuten udal ordezkariak, gehiengo osoz, azken osoko bilkuran. Zerbitzu berriari lotutako zalantzak argi geratu ez zirelakoan, EAKo ordezkariak abstenitu ziren.

Sinatutako hitzarmenak lau urteko iraupena izango du. Bus-taxi doako zerbitzu berria martxan jartzeko eman beharreko pausoa zen. Proiektu berri hau gauzatzeko Udalak hitzarmena indarrean dagoen denboran, 48.000 euro ordainduko dizkio Behemendiri, urteko 12.000 euro. Mikrobusa Udalak erosi du. Gidaria kontratasteaz, Behemendi arduratu da.

Ilegalizazio epaiei erantzuteko, bi eguneko itxialdia egin zen udaletxean

Egun batzuk lehenago, ezohiko osoko bilkuran mozio bat onartu ostean, udal gobernu taldeko kideek eta haiekin batera udalbatza aretora hurbildu ziren herriko eragile eta herritarrek ilegalizazio epaiei erantzuteko itxialdia burutu zuten urriaren 2an eta 3an.

Astebeteren buruan EAE-ANV, EHAK, Gestorak eta Askatasuna ilegalizatzeko kaleratutako epaiei eta oro har, salbuespen egoerari erantzutea zen itxialdiarekin bete nahi zuten helburua. Horren guztiaren lekuko bihurtu zen udalbatza aretoa. Bi egunez, udal gobernu taldeko kideek eguneroko lan jarduna eten, herriko eragileekin bildu eta hausnarketa politikoa partekatu zuten.

Usurbilgo udal gobernu taldetik, “estatu proiektua zalantzan jartzen duen oro kriminalizatzen dela aipatzen da, kezka, zalantza eta beldurra eraginez udal ordezkariet”. Baina gogorarazten denez, udal gobernu



URRIAREN 2AN ETA 3AN ITXIALDIA EGIN ZUTEN UDALETXEAN, KALERATU DIREN ILEGALIZAZIO EPAIEI ERANTZUTEKO. HAUSNARKETA POLITIKORAKO TARTEA HARTU ZUTEN UDALBATZA ARETOAN BILDUTAKO UDAL ORDEZKARI, ERAGILE ETA HERRITARREK.

taldeari zilegitasuna herriak eman dio. Hori dela eta, “irizpide ezkertiar eta abertzaleetik aurkeztutako programa” betetzeko konpromisoa berresten dute.

Gainerako aukerekin batera independentzia bere barne hartu eta lurraldetasuna eta erabakitze eskubidea jasoko dituen marko demokratikoaren beharra aldarrikatzen dute.

Manifestazioarekin amaitu zen itxialdia

Azken ilegalizazio epaiei erantzuteko bi egunez udaletxe barruan burutu zen itxialdiari, bertatik irten eta herri erdiguneko kaleak zeharkatu zituen manifestaldiak amaiera eman zion, pasa den urriaren 3an.

“Herriaren borondatea errespetatu. Ilegalizazioarik ez” zioen udal gobernu taldeko kideak buru zituen mobilizazioko aldarriak. Atzetik segidan zetozen, deialdiari erantzunez, hitzorduarekin bat egin zuten herritarrek.



IRUDIAN, BI EGUNEKO ITXIALDIAREN ONDOREN, UDAL GOBERNU TALDEKO ORDEZKARIAK BURU ZITUEN MANIFESTALDIA.

2009rako ordenantza fiskalak, gehiengo osoz behin behinerako onartu dira

Udal ordezkarien gehiengo zabalak babestu zituen gobernu taldeak azken ohiko osoko bilkuran urte berrirako aurkeztutako ordenantza fiskalei lotutako proposamenak. Aipatzekoak dira, zabor bilketa eta ur hornidura zerbitzuetan aplikatuko diren igoerak eta Haur Eskola zerbitzuaren kuotetan izango den beherakada. Onarpena behin behinekoa da. 30 eguneko epea dago orain, alegazioak aurkezteko.

Azken osoko bilkuran, datorren urtean indarrean jarriko diren ordenantza fiskalak onartu ziren behin behinerako, gehiengo osoz. Eguneroko oinarritzko zerbitzuen truke urtean zehar herritarrek ordaindu behar dituzten zergak, tasak eta prezio publikoak aldatuko dira, 2009an sartzearekin batera. Nabarmenki aipatzekoak dira ur-hornidura eta zabor bilketa zerbitzuetan aplikatuko diren igoerak, %10 eta %50 hurrenez hurren, eta Haur Eskola zerbitzuaren kuotetan izango den %20ko jaitsiera. Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) gorakada %5ekoa izango dela kontuan hartuta egin dira aldaketok.

Babes zabala, gehiengo osoarena jaso dute zerga desberdinetan aplikatu nahi diren aldaketek. Udal gobernu taldearen proposamenekin bat egin zuten, Aralar, PSE-EE eta EAJ-PNV-ko zinegotziek.

EAKo udal ordezkariak aurka bozkatu zuten. Alkate Xabier Mikel



UDAL GOBERNU TALDEAREN PROPOSAMENAK ARALAR, PSE-EE ETA EAJ-PNV TALDEEN BABESA JASO ZUEN.

Errekondoren hitzetan, "EAK demagogia hutsa egin du %50eko igoera salatzean, alderdi berak Kontsurtzioan %70-80tik gorako igoera defendatu duenean".

Gainerako udal ordezkariak kostuezu jabetu direla aipatzerekin batera, EA aurka egon behar horretan baka-rrik geratu dela gaineratu zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak.

Ur hornidura zerbitzuko tasa, %10eko igoera

Datorren urtean, Añarbe Mankomunitateko ordezkariak bertatik ura hartzeagatik kobratu beharreko tasa %20 igotzea erabaki dute. Edozein kasutan, Añarbetik aplikatu nahi den igoeraren azpitik

dago udal gobernu taldeak proposatu eta gehiengo osoak babestu duen aldaketa; %10eko igoera hain zuzen. Iaz, herritarrei kobratutako zergen bidez, ur hornidurak eragindako gastuen %60ari aurre egin zitzaion.

2007ko datuak	KOSTUAK	SARRERAK
UR HORNIDURA	798.302,91 euro	482.024,41 euro

Iluspaindegia eta Solarium-a

Loli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Zabor bilketa zerbitzuko tasa: %50eko igoera

Urte berrirako, %50eko igoera onartu du Udalak gaur egungo zabor bilketa zerbitzuaren garestitzeari erantzuteko: San Markoseko zabortegearen itxieragatik eta beste zabortegeetara bideratzeagatik. Alkate Xabier Mikel Errekondok adierazi duenez, “gaur egungo gastua ikaragarri igo da eta helburu bakarra, horri erantzutea da”. Argi utzi nahi dute, aplikatuko den igoerak 2009an jarri nahi den bilketa sistema berriarekin ez duela zerikusirik.

Asmoa, gaur egungo zerbitzuak Udalari sortutako defizit handia arintzea da. Hain zuzen, orain arteko urteroko igoerak %10 inguruak izan direla zehazten du, gaiari lotuta teknikariek burutu duten txostenak. Ikusten denez, portzentaje hori defizita jaisteko inolaz ere ez da nahikoa izan, zerbitzuak eragindako beste gastu batzuk neurri handiagoan igo baitira. “Igoera hau ezinbestekoa ikusten dugu, nahiz jakin horrelakoak ez direla inorentzat atseginak. Azken urteetan tasak igo izan badira ere, gastuak berak askoz gehiago igo dira”, adierazi du kontu hartzaile Xabier Olanok. %50eko igoerarekin ere, zuloak handia izaten jarraituko duela iraga-

	2009 urtea	2008 urtea
Etxebizitza bakoitzak	19 euro	12,65 euro
Jatetxeak, sagardotegiak, supermerkatuak...	114 euro	76 euro
Otorduak zerbitzatzen ez dituzten barrak	57 euro	38 euro
Elikagai merkatal establezimenduak	38 euro	25,3 euro
Gainerako merkatal establezimenduak eta zerbitzuak	28,5 euro	19 euro

**Tarifak hiruhilekoak dira.*

ri du udal teknikariak.

Inguruko herrietan, altuagoak

Hala, zabor bilketa zerbitzuaren kasuan, gastuen laurdena soilik berreskuratu zen zergen bidez 2007an. “Gauza bat %20-30eko defizita izatea da, baina %75ekoa izateak ez du inolako zentzurik”, adierazi du Olanok. Oinarrizko zerbitzuak defizitarioak izatea Udalak barneratua duela dio, baina aipatu portzentajea neurritz kanpoko irizten dio alkateak. Bestalde, inguruko herriek, Usurbilgoak baino tasa dezente altuagoak dituztela argitzen du txostenak.

Tasak herriz herri

HERRIA	2008ko tasak
Donostia	91,31
Irun	89,92
Usurbil	50,06
Astigarraga	56,54
Hernani	55,60
Lasarte-Oria	61,20
Lezo	57,50
Oiartzun	82,83
Orio	64
Tolosa	66
Urnieta	59,88
Zarautz	56,94

Haur Eskola zerbitzuko tasa: %20ko jaitsiera

128 haur dituen Haur Eskolak urte berriari, kuoten jaitsierarekin ekingo diote, %20ko beherakadarekin. Baikor ageri dira udal gobernu taldeko kideak, denbora luzeko elkarlanaren ondorio izan baita adostutako neurria.

“Herritar orok eta, batez ere, guraso guztiek estimatzen duten zerbitzua da Haur Eskola eta irtenbiderik egokiena ematea lortu da. Urtebete pasatxoan, eragileok ahalegin handia egin dugu; Haur Eskolako guraso eta hezitzaileek, ikastolako zuzendaritza eta gurasoen ordezkariak eta udal taldeek. Asmatu dugu”, adierazi du alkateak. Kalitateko zerbitzua ematen duen eta herri ikuspegitik hezkuntza sisteman integratua

	2009 euro/hilean	2008 euro/hilean
Egun osoko zerbitzua	240 euro	300 euro
Egun erdiko zerbitzua	60 euro	120 euro
Egun erdiko zerbitzu eta janaria	168 euro	210 euro
Udarregi ikastolako ohiko zerbitzua	55 euro	

egon behar duen Haur Eskolan sinisten dutela berresten du Errekondok. Modu horretan, gogoratzen duenez, “aurreko ikasturterako behin behineko irtenbideari betikotasuna eman diogu”. 0-16 barruan integratuta, Udarregi ikastolaren bermearekin, Haur Eskolaren proiektua mantendu, bertan sukaldatutako bazkari ekologikoa eta, gainera, gurasoek haur bakoitzeko ordaindu beharreko kuota modu nabarmenean

murriztea lortu dute. Partzuergokoa baino eskaintza merkeagoa.

Beherapenak ere izango dira

Tarifa horiek alda litezke familia bereko bi senide edo gehiago Haur Eskolan baldin badaude. Bi anai-arreben kasuan, bat eta erdi bezala zenbatuko dira dagokien kuota ordaintzerakoan. Hiru izanez gero, bi bezala eta lau edo gehiago badira, kuoten erdia ordainduko dute.

Igande honetan Zubietan, Euskal Jaia

Euskal jai giroa nagusi izango da igande honetan Zubietan. Goiz partean hasita, ekitaldiak ugari izango dira: umeentzako jolasak, pottokak, trikitilariak, errebote partida eta joko-arauen azalpena, kantu-poteoa... Eguerdian herri bazkarian bilduko dira Araeta jatetxean eta egunari amaiera emateko, erromeria arratsalde partean Tapia ta Leturiarekin.

Zubietta Lantzen elkarteak antolatu du igande honetako Euskal Jaia. Erraustegiaren kontrako ekintzekin hasi ziren elkartzen, eta kultur eta kirol arloetara zabaldu dute euren jarduna, "zubietarrok herrian bertan aukera gehiago eduki ditzagun", adierazi digutenez.

Orain arte, bestelako ekimen hauek

bideratu dituzte: erraustegiaren kontrako bertso-afaria, zaborren sailkapen egokia sustatzeko ekintzak, in-line patinaje ikastaroa, dantza ikastaroa, bonsai-erakusketak... "Ikastaroak eta bestelako kultur ekintzak antolatzea, frontoi atzeko lokala kudeatzea, erraustegiaren kontra eta alternatibaren alde aritzea, kirola sustatzea... horiek izan dira gure egitekoak". Zubietta Lantzen-etik adierazi digutenez, "etorriko dira ekintza gehiago. Hasteko, igande honetarako Euskal Jaia ari gara antolatzen".

Baserritarrez jantzita

Igandeko Euskal Jaian partehartzeko gonbita jaso dute dagoeneko zubietarrek. Hala nola, baserritarrez jantzita azaltzeko deia ere egin dute antolatzaileek.



TAPIA TA LETURIAREKIN ARRATSALDEKO ERROMERIA GIROTUKO DUTE.

Egun osoko egitaraua

10:00 Umeen betiko jolasak eta pottokak.

11:00 Errebote partida eta joko-arauen azalpena.

13:00 Kantu-poteoa.

Goizean zehar, trikitilariak.



14:00 Herri bazkaria Araeta jatetxean (Txartelak Barazarren jarri ziren salgai baina urriaren 5ean amaituko zen txartela erosteko epea).

17:30 Tapia ta Leturiarekin erromeria.

Antolatzailea: Zubietta Lantzen

Laguntzailea: Usurbilgo Udala

Oharra: Baserritarrez jantzita parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek.

Endika Abril

Errebote Txapelketa

Igande honetan, Endika Abril Txapelketako partida berri bat jokatuko da Zubietan. Sailkapen ligaxkako azken partida, gainera, Euskal Jaia egitarauan jaso da. 11:00etatik aurrera, Donibane Lohizuneko Luzaz Gazte taldea eta Zubietta 2 taldeak arituko dira.

Sailkapen fasea bukatuko da igandean eta lehen sailkatua finalera pasako da zuzenean. Sailkapeneko bigarren eta hirugarren geratzen diren taldeek finalerdia jokatu beharko dute urriaren 19an Villabonan.

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

LABE-GOXO

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Datorren astelehenean, helduentzat zinea Sutegin

Datorren astelehenean, "Siete mesas de billar francés" pelikula botako dute Sutegin, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Sarrera ez da ordaindu behar, baina Kutxako bulegoan eskuratu behar da alde aurretik. Lan honengatik, Gracia Querejeta zuzendariak gidoi onenaren saria irabazi zuen iazko Donostiako Zinemaldian.



ASTELEHENEAN 18:00ETAN
HASIKO DA PELIKULA.

Gidoi onenarena ez zen iazko Zinemaldian jaso zuen sari bakarria izan. Halaber, Blanca Portillo aktore onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen filmean egindako lanagatik.

Bere azken film luzean, haurtzaroak eta aitaren irudiak duen garrantziaren inguruko hausnarketa egin du Gracia Querejeta zuzendariak.

Pelikularen sinopsia ondorengo da: Angela eta Guille semea hirira joan dira Leo, emakumearen aita eta

umearen aitona, bat-batean gaixotu egin baita. Udako egun bero bateko egunsentian heltzen direnean, Leo hil egin dela jakingo dute. Orduan, Charok, hildakoaren maitaleak, aitaren negozioak porrot egin zuela esango die. Frantziar billarreko zazpi mahai dituen lokal bat da, baina urtean joanak bezeroak eta distira kendu dizkio. Charok saltzea proposatuko die.

Palestina eta Israelen arteko gatazkari buruzko hitzaldia

Palestina-Israel gatazkari buruzko hitzaldia antolatu du Aitzaga elkarteak. Martxelo Diaz kazetaria eta nazioarteko gaian adituarekin batera, Palestinatik etorri berri den brigadista batek hartuko du parte ostegun honetako hitzaldian.

Aurten bete dira 60 urte Israelek Palestinako lurretan, indarrez, bere Estatua sortu zuenetik. Geroztik bi herri horien arteko gatazka ez da itzali. Aitzaga elkarteak aditzera eman digunez, "interesgarria iruditu zaigu gatazka horren nondik-norakoak azaltzea, dakitenek gogorra dezaten eta ez dakitenek jakin dezaten".

Noiz eta non: urriak 9 osteguna, arratsaldeko 19:30ean Sutegin.

Antolatzailea: Aitzaga Elkarteak.

'Mokaua' ikuskizuna, musika eta irudiak bat eginik

Sukalde batean hasten da eta sukalde batean amaitzen Mokaua ikuskizuna, eta pintxo baten inguruan. Elorrioko hiru musikari eta bideojockey bat biltzen dira Logela Multimedia egitasmoan, eta euren azken ikuskizuna eskainiko dute datorren astean Sutegin. Ander Garaizabalek abestu eta sekuentziadoreak erabiltzen ditu zuzenean. Hainbat kantatan perkusioa jotzen du. Gorka Molerok gitarra eta teklatura joko

ditu, eta Karlos Gomezek baxua eta kontrabaxua. Imanol Garaizabal bideojockeyak pantaila erraldoi batean proiektaturiko irudiak nahasten ditu zuzenean. Musikarien eta irudien arteko elkarrekintza lortzea da Logela Multimedia taldearen helburua.

Non eta noiz: Sutegin, urriaren 17an, 22:30ean.

Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Elkarteak.



URRIAREN 17AN SUTEGIN,
MOKAUA IKUSKIZUNA.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Zuberoako Kako baserriaren alde

Laguntza bonoak jarri dituzte salgai Alkartasuna kooperatiban

Zuberoako Kako baserria ezagun egin zen urte hasieran. Bertako laborariak lurra galtzeko arriskuan izan ziren. Orain, GFAM Lurra elkarteak eta laborariak beraiek martxan jarri duten ekimenari esker, euren lantokia mantentzeko aukera izango dute. Baina laguntza premian dira. Nafartarrak elkarteak eta Alkartasuna kooperatibak bat egin dute laguntza-kanpaina honekin. Honen harira, urriaren 18an elkartasun bazkari bat antolatu dute Andatzpen.

Zuberoako laborariak albiste izan ziren urte hasieran. Ainharbe herriko Kako baserrian maizter moduan lanean ziren laborariak, baserria bera erosteko asmoa azaldu zuten. Baina beste batzuek diru gehiago eskaini zuten, epez kanpo, eta azken horien alde agertu zen Safer erakundea, laborari lurren segida nori eman erabakitzen duen erakundea.

Urtarrilaren 17an, laborarien aldeko elkarretaratzean istiluak izan ziren manifestari eta jendarmeen artean. Atxiloketak, epaiketa... Azken hilabeteotako kontuak izan dira.

Martxoan, honako akordio honetara iritsi ziren GFAM Lurra elkarteak eta laborariak Kako baserriko nagusiekin: 1.000 m² lurra eta baserria, dena batera saltzea. Hau guztia, 260.000 euroren truke. Laborariak, dena erosteko dute, lurra berreskuratu ahal izateko. Baserria, aldiz, saldu egingo dute berriro, baina espekulazioan erori gabe.

Bizitegia elkartea eratu dute

Laborariak, erosketari aurre egiteko, Bizitegia elkartea osatu dute. Hala ere, laguntzaren premian dira. Gauzak horrela, Nazio Eztatbaida Guneak baserriaren erosketan laguntzeko kanpaina jarri du martxan. 1.000 euroko



KAKO BASERRIAK ZERESAN HANDIA EMAN ZUEN URTE HASIERAN. HAINBAT LABORARI ATXILOTUAK IZAN ZIREN EUREN LANTOKIA DEFENDATZEKO EGINDAKO EKITALDI BATEAN.

bonoak atera dituzte. Bono hauek, donazio moduan eman daitezke edota elkartasunezko mailegu moduan. Bonoa maileguan erosten duenak, %70a jasoko du bueltan, gehienez bi urteko epean.

BONOEN SALMENTA

“Lurren erosketari aurre egiteko, laguntza bonoak jarri dira salgai”

Usurbilen, Alkartasuna kooperatibak eta Nafartarrak Kultur Taldeak bideratuko dute Kakoren aldeko kanpaina.

Diru asko denez, lau-bost lagun koadrila artean bono bat erosteko modua egon daiteke. Usurbilgo Udalak, esate baterako, bonoa erosteko asmoa azaldu du.

Azkorria gaztak salgai

Kako baserriaren proiektuarekin zerikusi zuzena du Azkorria gazta

kooperatibak. Alkartasuna kooperatiban Azkorria gaztak jarri dituzte salgai. Gazta hauek erostea bada laguntza emateko beste modua.

Urriaren 18an, elkartasun bazkaria Andatzpen

Kakoren aldeko kanpaina urriaren 18ra arte luzatuko da. Egun horretan, Usurbilgo Nafartarrak Kultur Elkarteak eta Alkartasuna Nekazal Kooperatibakoek salmenta-postu bat jarriko dute kaxkoan, Bordatxo eta Txirristra artean. Informazioa banatuko dute eta Euskal Herriko produktuek jarriko dituzte salgai.

GFAM Lurra erakundeko kide bat ere hurbilduko da eta proiektuaren berri emango du salmenta-postu horretan.

Ondoren, bazkaria egingo da Andatzpen. Bordatxon eta Txirribogan jarriko dira bazkarirako txartelak salgai.

Kanpaina honi buruzko informazio gehiago Alkartasuna kooperatiban jaso daiteke.

Berriz ere, Orio nagusi

Bigarren urtez jarraian, Oriok irabazi zuen Aginagako II. Trainerila Txapelketa. Hondarribia izan zen bigarren eta Aginagak aurre hartu zion Usurbili. San Praixku jaiek, segida izango dute asteburu honetan.

Eguraldia ederra izan zen eta horri esker, beste behin ere, jende asko hurbildu zen Aginagako erriora. Arraunlariak ikuskizun ederra eskaini zuten. Iaz, Trainerila Txapelketa antolatzea pentsatu zutenek bete-betea asmatu zuten. Aurtengoak ere, arrakasta handia izan du. Arraun zaletasuna handia dago inguruan eta San Praixkutako desafioak hango eta hemengo zaletuak biltzeko ahalmena du.

Hondarribia bigarren

Ibai Zubizarreta patroiairen agindupean aritu ziren Orioko arraunlariak, Igor Agirregomezkorta, Mikel Arostegi, Josu Indo, Josean Olaskoaga Aizperro, Unai Etxeberria eta Asier Kolina. Orioko ontziak ia 5 segunduko alde atera zion bigarren sailkatu zen Hondarribiari. Atzetik iritsi ziren San Juan, Aginaga, San Pedro eta Usurbil, hurrenez hurren.



SAN PRAIXKUTAKO TRAINERILA TXAPELKETA ORIORENTZAT IZAN ZEN. HONDARRIBIA BIGARREN ETA PASAI SAN JUAN HIRUGARREN. AGINAGA LAUGARREN IZAN ZEN ETA USURBIL IZAN ZEN DENBORA TXARRENA EGIN ZUENA.

Batzuk jada hasi dira datorren urtekoan pentsatzen...

Sailkapena

1. Orio..... 8:19:99
2. Hondarribia 8:24:93
3. San Juan 8:32:46
4. Aginaga 8:42:43
5. Pasai San Pedro..... 9:07:73
6. Usurbil 9:18:93



ORIO IZAN ZEN NAGUSI, 5 SEGUNDUKO ALDEAREKIN.

Aginagako oilasko biltzaileak larunbatean irtengo dira

URRIAK 10 OSTIRALA

Umeen Eguna

10:00: Haurren jolasei hasiera emango zaie. Gogotsu etorri!

13:30: Herriko aitatxo-amatxoan eskutik, makarroi eta oilasko goxogoxoak haur guztientzat.

Bazkalostean, jolasen jarraipena eta sari banaketa.

17:30: Txirri Mirri eta Txiribiton Junior pailazoak.

Ondoren, txokolatada eta buruhandi bixkor bixkorak!!! Haurrak prestatu

korrika egiteko!!!!

23:00: Ez da girorik faltako Trakets taldearen dantzaldian.

URRIAK 11 LARUNBATA Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00: Oilasko biltzaileen gosaria.

15:00ak aldera: Oilasko biltzaileen itzulera.

16:00: XXVIII. Mus Txapelketa Herrikoia. (Izen ematea 15:30etatik aurrera).

21:00: Herri afaria. Txartelak betiko

lekuan salgai.

Jarraian, Tximeleta taldearekin dantzaldia.

Ondoren, Larra Dj-arekin goizaldera arte musika ezberdinaz gozatzeko aukera Aginagako Eliza Zaharrean.

URRIAK 12 IGANDEA

17:30: Herri Kirolak. lau talde arituko dira: Aginaga A, Aginaga B, Igeldo eta Zubieta. Jarraian, sardin eta sagardo dastaketa. Aldi berean, XXVI. Toka Txapelketa herri mailan.

Agenda !

Urriak 9 osteguna

Palestina-Israel gatazkaren jatorria, hitzaldia Sutegin. Hizlariak: Martxelo Diaz kazetaria eta Palestinatik etorri den brigadista bat. 19:30ean.

Urriak 12 igandea

Euskal Jaia Zubietan. Goizean, plazan, umeentzako jolasak, trikitalariak, errebote partida, kantu-poteoa. Herri bazkaria eta arratsaldean erromeria Tapia ta Leturiarekin.

Urriak 13 astelehena

Hirugarren adinekoentzat zinea: "Siete mesas de billar frances". Sutegin, arratsaldeko 18:00etan.

Urriak 16 osteguna

"Nekazaritzak sortzen dituen energia eta gas isurketak", hitzaldia Sutegin. 20:00etan. Sarrera, doan.

Urriak 17 ostirala

"Mokaua" Logela Multimedia ikuskizuna, Sutegin. 22:30etan, sarrera aldeztu aurretik 8 euro. Txiribogan salgai. Takilan, 10 euro.

1951ko kintoak

Urriaren 18an larunbata, 1951 urtean jaiotako kintoak Sekaia erretegiaren elkartuko dira. Izen eman nahi duenak, Sekaia erretegiara deitu dezala: 943 362 773.

1955eko kintoak

Urriaren 18an larunbata elkartuko dira, Antxeta jatetxean. Izena emateko deitu telefono zenbaki hauetara:

943 36 14 69 (Maribel)

943 36 60 39 (Maribi)

1983ko kintoak

Urriaren 11n Aginaga sagardotegian. Irratin 19:30ean elkartuko dira Aginagara joateko. Izena emateko epea urriaren 8an amaitu zen.

Ziortza Gazte Elkartekoak laster hasiko dira biltzen

Ziortza Gazte Elkarteko begiraleak lanean hasteko prest dira. Laster hasiko dira ikasturte berriarekin. DBH lehen mailako egiten hasi direnek, lehenengo saioa datorren astean izango dute. Urriaren 17an ostirala, iluntzeko 20:00etan Ziortzako geletan.

Gainontzeko ikasleak ere laster hasiko dira. Ziortzakoek adierazi dutenez, "pasa den urtean gurekin ibili zinetenoi, gutuna iritsiko zaizue etxera eta bertan azalduko da bakoitzari noiz dagokion saioa".



DBH LEHEN MAILAKO IKASLEAK
URRIAREN 17AN BILDUKO DIRA
ZIORTZAKO GELETAN.

Ziortzakoek dioten bezala, "primeran pasa nahi baduzue, azaldu eta bertan ikusiko dugu elkar".

Alejandro Tapiaren omenezko bazkaria

Urriaren 19an, Aginagak omenaldia egingo dio Alejandro Tapiari margolariari. Hasteko, eskultura bat inauguratuko da eta ondoren herri bazkaria egingo da Aginagako frontoian. Bazkarirako txartelak salgai daude, 25 eurotan. Usurbilen, Txirristran eta Mahukan. Aginagan, Arrate Zahar Egoitzan.

Margo erakusketa

Aginagako Eliza Zaharrean

Omenaldiarekin batera, Alejandro Tapiaren erakusketa zabalduko da urriaren 19an Eliza Zaharrean.

Erakusketak ordutegi hau izango du: asteazketatik ostiralera, 18:00-20:00. Larunbatetan eta igandetan, goizez, 12:00-14:00; eta arratsaldez, 18:00-20:00.

Aginagako Antxomolantxa elkarteak antolatuta ditu Tapiaren omenezko ekitaldi hauek denak.

Auto-estima tailerra antolatuta da

Auto-estima tailerra eskainiko da doan AEK-Etumeta euskaltegiko lokalean, urriko azken astean hasi eta hiru astez. Usurbildar orok parte hartu dezake, Einean Guraso Eskolak eta Udalak antolatuta duten ikastaroan.

Bi talde osatzeko aukera dago. Astean bi egunetan eskainiko dira saioak eta bi ordutegi aukeran; goizez, 9:30-11:30 artean, eta eguerdian, 14:30-16:30 artean. Izena emateko epea irekita egongo da ikastaroa hasi arte, honako telefono zenbakian: 615 006 535.

Bitxigintza tailerra

Bestalde, telefono zenbaki berdinera deitu behar du, jada abian den eta Einean Guraso Eskolak antolatuta duen bitxigintza ikastaroan parte hartu nahi duenak. Oraindik, lekua bada bertan.

ETXEBIZITZA

- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 47.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 220.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroerakin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila

gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.

- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Emakume euskaldun bat behar da arratsaldeko 17:00tatik 21:00tara edadetutako emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Baldintza onak. 943364310
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Kamarera bat behar da, Antxetan lan egiteko barran, esperientziarekin. Astelehenetik ostiralera lan egiteko. 943 37 03 44.
- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduategian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tardeka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Garbiketara, gaixoak zaintzen... edo bestelako lanetan. 608 00 54 06.

- Lan bila nabil. 608 83 50 33.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disonibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250'tan. 6-8 hilabete arteko umezentzat egokia. 616586851.
- BMW 650F motra daukat salgai. Egoera onean eta garajeen egondakoa. 666988050.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Txakurra itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxoi eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Arropadenda batetarako altzariak eta mostadore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- Txandal baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoa salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Aritz egurrezko aulkia salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Joxe Mari eta Dolores!
Urriaren 9an 60 urte ezkondu zinetela. Elkarrekin ospatuko dugu hilaren 26an.
Egun zorionsua pasa!



Zorionak
eta muxu handi
bat, bereziki
Noraren partetik!



Zorionak Unai!
Urriak 9an 3 urte egingo dituzu. Zorionak eta muxu potolo bat Eider eta gurasoen partez.

JAIOTZAK

Añes Rekondo Eizagirre, irailaren 26an.
Gorka Eskibel Anikaberri, irailaren 28an.

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan telefono zenbaki honetara: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com



- %100 Kolonbiako kafea alean edo eho berria exera eramateko "La casa del cafe"

- Batido naturalak.

- Ezeizako tarta edo pastelak enkarguz.

- Sukalde tradizionalan eginiko otorduak prestatzen dira aurrez eskatuta.

ERREKATXIKI, 2
USURBIL
Tel.: 943 24 33 71

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE



Noaia! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara, "Uartelgo baserriak eta baserriarrak" liburua jasoko duzu duan

Izen deiturak: _____ Jaiozte data: _____ Sexua: _____

NANzenbaldia: _____ Hurbidea: _____

Hona: _____ Posta kodea: _____ Bazardea: _____

Tel: _____ e-mail: _____

Banketxea: _____ Kontu korronteko zkoa (orduguzkoa) _____

Bazkide KUOTA: 36€ (uztailean kobratuko da kontu korrontetik)

JOSE AZPURUA
UNANUE
TELATUAK • FATXADAK
Obaba kalea 29, Asteasu
943 69 68 52
620 800 186

URDANTZI S.L.
igeltseritza
943 367 264
649 435 475
649 435 476

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679
649 435 470
Kale nagusia 47, behea A

Josue Aranzazistroki
943 360 550
606 372 105
Juan Jose enea 1. kalean

XUKIN
igeltseritza orokorra
663 087 671
Erreka Txiki 6. 1B

Antonio URRUZOLA
Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Asteasuain Industrialdea, 3

BEREZIARTUA S.L.
egurra eta
egur-aluminiozko
lehoak - eskailetak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE
Balsamendi Arreoi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Elxe Kalea
ZUBIETA

 Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza...
Josetxo ikatzeta
687 951 225

Lataillade
gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

Rafa iturgindegia
Bainuko altzariak
Manparak...
943 368 004
Bordaberri kalea 1,

JOSEBA ARANGUREN
943 830 072
659 883 912

Javier Orbegozo
Gasa-berokuntza
659 602 789
Erreka txiki 13. 3esk

FERNANDO PINTURAK
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 019


iza Agirre [irrelektzitate.com](mailto:iza@irrelektzitate.com)
Apto. 37
943 35 60 95
609 06 01 11
943 37 65 87
Gatz Argi ohea 11-37
Kale Zahar Auzoa
20170 USURBIL (Gipuzkoa)

ARGILAN
Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak konponketak
943 361 380
629 272 859
Borda berri 5 behea

ofizioen gida

IGELTSEKITZA

AROTZEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com